

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DULANTZIKO UDALA

**Behin betiko onestea zerbitzu publikoak eskaintzeagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik kobratu beharreko tasak arautzen dituen zerga ordenantzaren aldaketa, musika eskolari buruzkoa**

Udal honek, 2019ko abenduaren 4an egindako ohiko bilkuran, hasierako onespina ematea erabaki zuen zerbitzu publikoak eskaintzeagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik kobratu beharreko tasak arautzen dituen zerga ordenantzaren aldaketari, musika eskolari buruzkoari.

Agiria jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onetsizat jotzen da. Hona hemen:

#### **Zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza**

##### I. Xedapen orokorrak

#### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren 20. eta 25. artikuluek, Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 14ko 185/1995 epaiak eta uztailaren 13ko 25/1998 Legeak xedatutakoarekin bat etorritik, Dulantziko Udalak ordenantza honen eranskinean ageri diren zerbitzuak eskaini eta jarduerak egiteagatik kobratu beharreko tasak ezarri eta exijitzen ditu, ordenantza honetan ezarritakoari jarraituz. Tasa horiek ere ordenantza honen zati dira.

#### **2. artikulua**

Ordenantza hau Dulantziko udalerrri osoan aplikatuko da.

##### II. Zerga egitea

#### **3. artikulua**

1. Zerga egitea da udal administrazioak subjektu pasiboari bereziki eragiten dion edo onura dakarkion udal eskumeneko zerbitzuren bat eman edo administrazio jardueraren bat egitea, hala eskatu diotelako edo partikularren ekintzek edo omisioek zeharka eragin dutelako.

2. Zerbitzuak ematearen tasa ezarrita ere, horrek ez du esan nahi zerbitzu horiek ezartzeak edo gehitzeak sor litzakeen kontribuzio bereziak ordainarazi beharko ez direnik.

##### III. Subjektu pasiboa

#### **4. artikulua**

1. Subjektu pasiboak edo zergadunak dira Arabako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 35. artikuluan aipatzen dituen pertsona fisiko zein juridikoak eta erakundeak, baldin eta zerbitzuak edo jarduerak eskatzen badituzte eta horien onuraz edo eraginaz gozatzen badute.

2. Hauek izango dira zergadunaren ordezkotako subjektu pasiboak:

a) Zerbitzuek edo jarduerak etxebizitzaren edo lokalen erabiltzaileei onura edo eragina ekartzen badiete, horiengatik ordaindu beharreko tasetan, ondasun higiezin horien jabeak. Horiek, hala badagokio, dagozkien onuradunei ordainarazi ahalko dizkiete kuotak.

b) Arriskua aseguratzen duten erakundeak edo elkarteak, ematen diren zerbitzuak hauek direnean: suteen kontrako neurriak hartzea, suteak itzaltzea, aurri, eraikuntza eta eraisketen babeseko neurriak hartzea, salbamenduak eta oro har, pertsona eta ondasunak babestea eta, halaber, zerbitzua mantentzea.

c) Tasak lurrari eta hirigintza antolamenduari buruzko arautegian xedatutako hirigintza baimenak emategatik ordaindu behar badira, eraikitzaileak eta obren kontratistak.

#### **5. artikulua**

Hauek ordaindu beharko dituzte tasak:

a) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek eskatzen badituzte, eskatu dituztenek.

b) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek eskatu ez badituzte, baina haiek egindako edo ez egindako zerbitzuetatik burutu behar izan badira, egindakoaren edo ez egindakoaren eragileak.

#### **6. artikulua**

Ordenantza honetatik ateratzen diren zerga zorrak, subjektu pasiboarekin batera, eranskinen ageri diren tarifak aplikatzeko arautan aipatzen diren pertsonak ordaindu beharko dituzte.

#### IV. Salbuespenak, murrizketak eta hobariak

#### **7. artikulua**

Aplikatu beharreko xedapen orokorren mende egongo da salbuespenak, murrizketak, hobariak eta bestelako zerga onurak ematea.

#### V. Zerga oinarria

#### **8. artikulua**

Zerga oinarria da zerbitzua gauzatzen den unitateetako bakoitza, dagokion tarifak dioen moduan.

#### VI. Kuota

#### **9. artikulua**

Zerga kuota zehazteko, aurreko artikuluari darion oinarriari, eranskinetako tarifetan dagokiona gehituko zaio, tarifa aplikatzeko arauen arabera.

#### VII. Sortzapena eta zergaldia

#### **10. artikulua**

Tasaren sortzapena zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denean sortzen da; hala ere, zenbateko osoaren edo zati baten gordailua eska daiteke.

#### VIII. Likidazioa eta diru sarrera

#### **11. artikulua**

Kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioak Dulantziko udal administrazioak egingo ditu, eta likidatutako kuota dirutan ordainduko da, ordainarazpen bakoitzerako tarifetan dauden arauen arabera.

Hala ere, tasak autolikidazioaren bidez ordaintzeko ere eskatu ahalko da.

#### IX. Tasen kudeaketa

#### **12. artikulua**

Ordenantza honek araututako tasen likidazio, bilketa eta ikuskatzearen gaineko guztian, eta zergen arau hausteen kalifikazioari eta dagozkien zehapenak zehaztearen gaineko guztian, Arabako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

**Eranskina****Musika eskolaren tasak**

I. maila – Hastapenak 1: 138 euros.

I. maila – Hastapenak 2: 182 euro.

II. maila – A eredua (16 urte edo gutxiago):

		URTEKO KUOTA
1. maila	Musika tresna: 30 minutu Musika hizkuntza: 90 minutu Koru kantua: 45 minutu	541 euro
2. maila	Musika tresna: 30 minutu Musika hizkuntza: 120 minutu	555 euro
3. eta 4. maila	Musika tresna: 30 minutu Musika hizkuntza: 120 minutu Ganbera musika: 30 minutu	643 euro
5. eta 6. maila	Musika tresna: 30 minutu Ganbera musika: 30 minutu	479 euro
5. eta 6. maila	Musika tresna: 30 minutu Musika tresnen taldea: 60 minutu	517 euro
5. eta 6. maila	Musika tresna: 30 minutu Musika hizkuntza: 60 minutu Ganbera musika: 30 minutu	562 euro
5. eta 6. maila	Musika tresna: 30 minutu Musika hizkuntza: 60 minutu Musika tresnen taldea: 60 minutu	606 euro
Arauzko hezkuntzara sartzeko errefortzua	Musika tresna: 30 minutu Musika hizkuntza (banan-banan): 30 minutu	1.105,87 euro

II. maila – B eredua (17 urte edo gehiago):

		URTEKO KUOTA
1. eta 2. maila	Musika tresna: 30 minutu Musika hizkuntza: 60 minutu	726 euro
1. eta 2. maila	Musika tresna: 45 minutu (musika hizkuntza egokitua barne)	533 euro
3., 4., 5. eta 6. maila	Musika tresna: 30 minutu	355 euro
3., 4., 5. eta 6. maila	Musika tresna: 30 minutu Ganbera musika: 30 minutu	604 euro

Modulu osagarria:

		URTEKO KUOTA
1. eta 4. maila bitartekoak	Musika tresna: 30 minutu Musika tresnen taldea: 60 minutu	553 euro

Musika tresnetan trebatzea prestakuntza programatik kanpo

		URTEKO KUOTA
Tasa (Musika tresna taldeak eta abesbatzak eta banakako prestakuntza, 30 minutu astean)		910 euro

Musika tresna taldeak eta abesbatzak:

Jarduera horietan hitzarmenik sinatuta ez duten udalerrietako jendeak ere eman dezake izena.

I. Musika tresna taldeak eta haur abesbatzak:

	URTEKO KUOTA
Ordubete asteko	150 euro

Dulantziko herritarrek ehuneko 20ko hobaria izango dute aurreko kuotetan.

II. Helduen abesbatzak:

	URTEKO KUOTA
2,5 ordu asteko edo izen emateen arabera	187,50 euro

Dulantziko herritarrek ehuneko 20ko hobaria izango dute aurreko kuotetan.

### Arautegia

Tarifa kuota bakarra da eta, gehienez, 10 epetan ordaindu ahal izango da. Dena den, erabilzaileak hala eskatuz gero, epe gutxiagotan ordaindu ahal izango da matrikularekin batera. Baja hartuz gero eta kuotaren epe guztiak ordaindu ez badira, kobratzen jarraitu da, eskolan jardungo balitz bezala.

Lehen kuota uztailearen lehen hamabostaldian ordainduko da eta urteko kuotaren ehuneko 10 izango da, bigarrena eta hurrengoak hilez hileko lehen hamabostaldian, harik eta uztaile arte, ordainketa eskaeraren arabera.

Ikasturtea hasita gero eman ez gero izena, dagokion zatia ordainduko da. Hura kalkulatzeko, kuota zati 10 egingo da eta gero hura bider ikasturtea bukatzeko gelditzen diren hilabeteen kopurua.

Kuota murriztu egingo da, baldin eta antolamendu eta funtzionamendu zioak direla eta eskolarik ematerik ez badago eta hilean galdutako eskola kopuruak ehuneko 25 baino gehiago egiten badu.

Ikasturtearen matrikula izapidetu ahal izateko, aurreko ikasturteetan zerbitzua emateagatik sortutako kuotak ordainduta eduki behar dira; bestela, ez da matrikula onartuko.

Ikasturtera onartutako eta ikasturteetik baztertutako pertsonen zerrenda argitaratutakoan, interesdunak hamar egun izango ditu baja emateko. Epe hori igarota, matrikulatutzat joko da, eta matrikulatuta dagoeneko jarduerari dagokien kuota ordaindu beharko du.

Hobariak:

– Gazte txartela: Urteko kuotatik 15 euro.

– Kide guztiak errolatuta dauzkaten familia unitateek hobari hauek izango dituzte:

- Familia unitateko 2 pertsona matrikulatzen badira, kide bakoitzaren matrikula kuota 15 euro merkeagoa izango da. Familia unitateko 3 pertsona matrikulatzen badira, musika eskolan matrikulatuta dagoen familia kide bakoitzaren matrikula kuota 25 euro merkeagoa izango da.

– 65 urtetik gorakoek eta langabetuek ehuneko 10eko hobaria izango dute.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Dulantzi, 2020ko urtarrilaren 23a

*Alkatea*

**JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA**